



Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 30ekoa; honen bidez, Ibarako Udalari gomendatzen zaio baliogabetzat jo dezala egin ez zen dantza-ikastaroari zegokion prezio publikoaren % 50 itzultzeko emandako udal erabakia eta beste erabaki bat har dezala, interesdunei ordaindu zuten zenbatekoa osorik itzul dakien.

Aurrekariak

1. (...) andreak eta beste bederatzita pertsonak erakunde honen esku-hartzea eskatu zuten, Ibarako Udalean birjartzeko errekurtsua aurkeztu ondoren; errekurtsua horretan, azkenean egin ez zuten dantza-ikastaroaren matrikula gisa ordaindu zuten zenbatekoa osorik itzultzeko eskatu zuten.

Interesdunek kexan diotenaren arabera, erakundeak ezin izan zien aipatu ikastarorako hasieran aurreikusitako baldintzei eutsi eta, beraz, ikastaroa beste irakasle batzuekin eta beste ordu batean eskaini zen. Egoera horretan, interesdunek jarduera horretan parte ez hartzea eta ordaindutako zenbatekoa itzul ziezailetela eskatzea erabaki zuten. Hala ere, Udalak partzialki baino ez zuen onartu aurkeztu zuten eskaera, matrikularen % 50 baino ez baitzuen ordaindu. Udal ebazpen horrekin ados ez eta erreklamatzailerik birjartzeko errekurtsua egin zuten.

2. Kasua lehenengo aldiz aztertuta, Udalari zuzendu gintzaizkion, interesdunek egindako errekurtsuari berariazko ebazpena emateko betebeharra zuela gogorarazteko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki. Alderdi horri dagokionez, Udalak bere betebeharra legezko epean bete zuela egiaztatu zuen eta, ondorio horietarako, alkatearen dekretuaren kopia bidali zigun; horren bidez, aipatu errekurtsua gaitzetsi zen eta kontu horren inguruan 2005eko azaroaren 9an Tokiko Gobernu Batzarrak hartu zuen erabakia berretsi.
3. Erabaki horren legezotasuna aztertze aldera, Udalari testu osoa bidaltzeko eskatu genion. Hori irakurrita garbi geratu zen Gobernu Batzarrak ez ziela modu uniformean erantzun ikastaroaren baldintzak aldatzearen inguruan



erregistratutako erreklamazio guztiei; aitzitik, kasu batzuetan, matrikulazio gisa ordaindutako prezioaren % 50 itzuli zuen eta beste batzuetan, berriz, matrikula osoa. Alde horren justifikazio gisa, erabakiak berak bi erreklamazio mota bereizten zituen: alde batetik, irakasle aldaketak eragindakoak; eta, bestetik, ordutegi berriarekin bat ezin egin zezaketela ziotenak. Lehenengoei % 50 itzuli zitzaien eta bigarrenei, berriz, zenbateko osoa.

Gainera, udal erabakiarekin batera, Ibarako Udalak Udal Aholkularitza Juridikoaren txostena bidali zigun. Gure iritziz, bertan ez zen ezer argitzen kasuaren inguruan, bertan jasotako ondorioak ez baitzetozen bat ustez legezkoak ez ziren jardunekin. Txostenak prezio publikoak erregulatzen dituen arautegia berrikusi zuen eta, ondorio gisa, Udalari iradoki zion, oro har, ez zezala matrikularen prezioa itzuli, *“ez bada ulertzen ordaindutako kopurua gordailu gisa eman dela eta horren truke ez dela zerbitzua jaso, ezta eskola bakar bat ere, eta ez bada ziurtatuta geratzen ez dela gasturik sortu interesdunaren alde”*.

Hala, beraz, bistakoa zen, interesdunen erreklamazioa ebazterakoan, Ibarako Udala txostenean jasotako irizpidetik urrundu zela. Horregatik, eta Udalak aipatu kontuaren inguruko azalpen osagarririk ez zegoenez, txostenari ez genion jaramonik egin.

4. Deskribatutako gestioek ez zuten emaitzarik izan, ordura arte aurkeztu zitzaigun dokumentazioak ez baitzigun inolako oinarri juridikorik eman interesdunek ordaindutako prezioaren erdia itzultzeko erabakiaren legezotasuna bermatzeko, berriz ere Udalari zuzendu gintzaizkion eskaera berriro egiteko.

Atzerapen handia egon zen arren, Udalbatzak gure eskaerari erantzun zion eta, bertan, bere jardunaren alde egin zuen. Kasu honetan adierazitako arrazoibideak honela laburbil daitezke:

- Udalaren ustez, ordutegi aldaketa bi erreklamatzailerentzat bakarrik izan zen bereziki larria eta, horregatik, bi kasu horietan zenbatekoa osorik itzultzea erabaki zuen.
- Gainerako erreklamazioei dagokienez, Udalak berariaz aipatu du idazkian, arautegia zorrotz aplikatuta, gaitzetsi egin behar izango



lituzkeela, baina horiek zati batean onestea erabaki zuela, “*irakasle aldaketak partzialki murriz baitzitezakeen ikastaroan jarritako itxaropenak*”.

5. Ez gaude inolaz ere ados Udalak gaiaz egin duen planteamenduarekin, legea modu arbitrarioan aplikatzen baita eta, gainera, berdintasun printzipioa urratzen baita. Hori dela eta, berriz ere Udalarari zuzendu gintzaizkion gure oharrak hari helarazteko eta berriz ere garatutako jardunak berrius zitzala iradokitzeke:

- a) Kexagileek erreklamazioa aurkeztu zuten hasieran eta, ondoren, birjartzeko errekurtsua, erreklamazioa gaitzetsi izanaren aurka. Bi dokumentuetan ikus daiteke bi direla beren erreklamazioaren kausak: irakasle aldaketa eta ordutegi aldaketa.
- b) Erreklamatzailerik gehiago zehaztu ez zuten arren zergatik egiten zuen ordutegi berriak zailagoa –edo ezinezkoa– haiek ikastaroan parte hartzea, horrek ez dio eskubiderik ematen Administrazioari alegazioa gutxieteko eta, are gutxiago, hori bazter uzteko, egin duen moduan. Ildo horretatik, uste dugu erreklamatzailerik eskaini zitzaizkien ordutegi berria kalifikatzeko erabili zituzten hitzak –“*familia, gizarte eta lanarekiko dituzten erantzukizunekin talka egiten du*”– egokiak eta nahikoak direla Administrazioak gai horren inguruan hausnartu eta zerbitzuaren prestazioan funtsezko aldaketa ote den azter dezan, egoera pertsonal berezien eragina handiagoa edo txikiagoa den alde batera utzita.

Orain arte, ez dugu gure oharren inguruko erantzunik edo oharrik erregistratu. Horren ondorioz, ezin izan dugu kexa arin izapidetu eta, azken batean, biztanleek Administrazioaren aurrean dituzten eskubideak zaindu eta bermatzeko eginkizuna, erakunde honi dagokiona, normaltasunez garatzea kaltetu du. Hala ere, eta tamalez, ezin izan dugunez Udalaren lankidetzari handiagoa lortu, gaia izapidetzen jarraitzea erabaki dugu, esku artean ditugun datu eta aurrekariak baliatuta.



Gogoetak

1. Nola bereiz hala batera aztertuta, uste dugu eztabaidaren xede den dantza-ikastaroaren proiektuak jasandako aldaketek behar besteko garrantzia dutela eskainitako zerbitzua eta benetan emandakoa berdina izan behar dutela dioen alderdia betetzen dela zalantzan jartzeko.

Zerbitzuak berdina izatea legez beharrezkoa da prezioa ordaintzeko betebeharra sortzeko. Baldintza hori Toki Ogasunei buruzko 11/1989 Foru Arauaren 49. artikuluan xedatutakotik dator (prezio publikoei buruzko kapituluaren gai hau horretan bakarrik lantzen da):

“1. Prezio publikoa ordaintzeko betebeharrak zerbitzua ematen edo jarduerari ekiten zaionean sortzen da, nahiz eta udalerriek dagokion zenbatekoa osorik edo horren zati bat aurretik jartzeko eskatu ahalko duten.

2. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari egozgarriak ez diren arrazoiengatik, zerbitzua edo jarduera eman edo gauzatzeko ez bada, dagokion zenbatekoa ordainduko da.”

Esku artean dugun gaia gutxi araututa dagoen arren (Toki Ogasunei buruzko 11/1989 Foru Arauaren 49. artikulua baino ez da aipatzen), ez dira hitzez hitzekoegiak diren interpretazioak egin behar; alderantziz, gutxi araututa dagoenez, bereziki gomendagarria da interpretazio orekatuak eta testuinguruan jarritakoak egitea. Ildo horretatik, uste dugu 49. artikuluko 2. atala ez dela soilik jarduera garatzen ez denean bakarrik aplikatu behar, baizik eta baita, jarduera garatu arren, hasieran aurreikusitakoekin zerikusirik ez duten baldintzetan egiten direnean ere, aldaketa horiek ez direnean interesduneei egozgarriak.

Aldaketa horiek, hots, irakaslearena (oraingoak, antza, ez du titulurik) eta ordutegiarena, inskribatutako pertsonetako bati berari ere egozgarriak ez diren arrazoiengatik gertatu dira eta, noski, haietako bakoitzari modu desberdinean eragiten diete. Hala ere, iritzi pertsonal eta subjektibo hori, kasuan kasu desberdina dena, Udalak ezin du inolaz ere epaitu edo baloratu, izena eman dutenetako bakoitzaren esparru indibidual eta pertsonalari dagokion kontua baita.



Hala, beraz, ikastaro horren ondorioz erreklamazioak ikusita, eta Udalak ez duenez horren inguruan ofiziozko jardunik egin, Udalak balorazio bakar bat egin behar izango zukeen: hasierako eskaintzaren eta bukaerakoaren artean berdintasunik ba ote zegoen edo, bestela, berdintasun hori egindako aldaketen ondorioz aldatu zela uste ote zuen zehaztea. Abiapuntu hori hartuta, ebazpen guztien zentzua haren zuzeneko ondorioa izango litzateke: Udalbatzaren ustez, gertatutako aldaketak garrantzitsuak izan baziren, orduan, prezioa ordaintzeko betebeharririk sortu ez zela onartu behar izango zukeen eta ordaindutako gutzia itzuliko zukeen. Alderantziz, aldaketak nabarmenak izan ez zirela pentsatuz gero, aurkeztutako eskaera guztiak gaitzetsi egin behar izango zituzkeen.

2. Jardueran egindako aldaketen inguruan egiten den balorazioa edozein dela ere, pertsona jakin batzuei matrikularen % 50 itzultzeko Udalak hartu duen erabakiak ez du inolako babes juridikorik. Hortaz, administrazio egintza hori zuzenbide osoz deuseza da; horri Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 224. artikulua aplikatu behar zaio:

“Zuzenbidean erabat deusezak adierazi ahal izango dira zerga alorrean emandako egintzak eta organo ekonomiko-administratiboaren ebazpenak, baldin eta administrazio bideari amaiera eman badiote edo epe barruan errekurritu ez badira, kasu hauetan:

- a) *Konstituzioaren babespean egon daitezkeen eskubide eta askatasunei kalte egiten dietenean.*
- b) *Gaia edo lurraldea dela-eta nabarmenki eskumenik ez duen organoak eman dituenean (...)*”.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

40/2007 GOMENDIOA, urriaren 30ekoa, Ibarako Udalarari egina

Baliogabetzat jo dezala Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 9an hartu zuen erabakia, 12 pertsonak dantza-ikastaro baten prezio publikoa zela



eta guztira ordaindu zutenaren, hots, 756 euroren, % 50 itzultzeko agintzen duen zatiari dagokiona, eta beste erabaki bat har dezala, interesdunei kontzeptu horren baitan ordaindu zutena osorik itzul dakien.